KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko iraila

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. Ekonomia sentimendua

5. Europako hazkundea

6. PMI

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioaren jaitsiera leundu zen abuztuan.

Pandemiaren eraginak bereziki industria kaltetu du.

2. Langabeziaren igoera erritmoa moteldu dela egiaztatu da.

Aurtengo abuztuaren igoera eta aurreko urteetakoena antzekoak dira.

3. Turismoaren prezioen beherakadak KPIa jaitsarazi zuen uztailean.

Mugikortasuna berreskuratu zen heinean, erregaien salneurriak hazi ziren.

4. Ekonomia sentimenduak hobera egin du Eurogunean.

Espainiak pausu bat atzera eman du zerbitzuetako mesfidantzarengatik.

5. Aurrekaririk gabeko beherakada Europar Batasuneko BPGan.

Urte arteko aldakuntza tasa %-14,1ean kokatu zen bigarren hiruhilekoan.

6. Zerbitzuek Euroguneko PMIaren susperraldia galgatu dute.

Italia eta Espainia kaltetuenak dira zerbitzuen eskari berrien jaitsieragatik.

7. Hilabeteko laburpena.

Ekonomiak suspertzeko prozesu motel bati ekin dio.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gizarte Segurantzako afiliazioaren jaitsiera leundu zen abuztuan

Gizarte Segurantzako afiliazioaren abuztuko datuek adierazten dute estatistika horren urte arteko beherakadak bere horretan jarraitzen duela, baina aurreko hiru hilabeteetakoa baino erritmo motelagoan. Izan ere, ekainean %3,1 jaitsi zen eta uztailean %2,8, baina abuztuan %1,9ra mugatu zen jaitsiera. Beherakadaren erritmoa oso esanguratsua izaten jarraitzen du, baina komeni da aipatzea 2009ko uztaileko %4,3ko jaitsiera eta 2013ko otsaileko %4,0koa baino txikiagoa dela, urte horietan izandako atzeraldi bikoitzaren inpaktu handieneko datak baitira bi horiek. Gaur egungo krisiarekin alderatuta, enplegua aldi baterako arautzeko espedienteen erabilera da, pertsonak enpresei lotuta eusteko, nahiz eta BPGaren beherakada aurreko atzeraldietakoa baino askoz handiagoa izan.

Generoaren araberako azterketak iradokitzen du beherakadaren leuntzea handiagoa dela emakumeen artean (-%1,0) gizonen artean (-%2,6) baino eta hori kolektibo bakoitzak lan egiten duen jarduera sektorearekin lotuta dago.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

ABUZTUKO AFILIAZIOA

-%1,9



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN
Urte arteko aldakuntza tasa



Izan ere, industriak bereziki gizonei ematen die lana eta azken bi hilabeteetan ia ez du inolako hobekuntzarik ezagutu (-%4,5). Aldiz, zerbitzuetan, emakume langileen ehuneko oso handia biltzen baitute, urtetik urterako beherakada nabarmen txikiagoa izan da (-%1,3), eta neurri batean zuzendu da.

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa ia erabat suspertu da sektore publikoari lotutako adarretan izandako gorakadaren ondorioz: osasuna, hezkuntza eta administrazio publikoa. Aitzitik, manufakturako industriak, ostalaritzak eta merkataritzak pandemiaren ondorioak pairatzen jarraitzen dute, eta afiliazioak murrizten dituzte.

GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOAK

	2019ko abuztua	2020ko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	**956.564**	**938.585**	**-17.979**
Industria manufakturagileak	176.006	167.983	-8.023
Merkataritza	139.235	136.154	-3.081
Osasun arloko jarduerak	108.421	110.953	2.532
Hezkuntza	63.784	64.640	856
Administrazio jarduerak	66.254	64.043	-2.210
Ostalaritza	62.822	58.383	-4.439
Eraikuntza	56.629	56.509	-121
Lanbide jarduerak	55.604	55.634	30
Administrazio publikoa	47.611	48.107	496
Garraioa	42.592	41.896	-695
Etxeko langileak	29.719	28.626	-1.093
Bestelako zerbitzuak	26.303	25.348	-955
Informazioa eta komunikazioa	23.123	23.096	-27
Finantza jarduerak	17.954	17.452	-502
Jarduera artistikoak	14.650	14.364	-287
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.729	12.508	-221
Or horniketa	6.582	6.582	0
Higiezinen jarduerak	4.124	4.170	45
Energia horniketa	1.791	1.523	-268
Erauzketa industriak	572	558	-14
Lurraldez kanpoko erakundeak	59	56	-3

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Langabeziaren igoera erritmoa moteldu dela egiaztatu da

Udako denboraldi turistikoaren amaiera hileko horretan gertatzen denez, abuztua, tradizioz, enplegurako oso hilabete positiboa ez den arren, langabeziak uztailarekin alderatuta izan zuen igoera azken urteetako abuztuan izandakoaren antzekoa izan zen. Zehazkiago adierazita, 3.090 langabe gehiago izan ziren Euskadin, eta urte arteko aldakuntza tasa %26,2 izan zen, aurreko hilekoa baino sei hamarren txikiagoa. Zenbaki absolutuetan, 146.450 langabe zenbatu ziren abuztuan, hots, otsailean baino ia 30.000 gehiago, koronabirusak ekarritako krisia EAEko lan merkatuan eragina izaten hasi aurreko hilabetean. Hala eta guztiz ere, igoera handienak martxoan eta apirilean gertatu ziren, harez geroztik moteltze prozesu bati bide emanez.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA
Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ABUZTUA

%26,2



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . GAZTEAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabeziaren hazkundearen erritmo leuntze hori orokorra izan zen sektore guztietan, salbuespenik gabe. Zehatz-mehatz adierazita, industriarekin hasita, sektore horrek izan zituen aldaketa erlatibo handienak (%29,4), baina egia da gehikuntza erritmoa gehien murriztu zuen sektorea ere izan zela, manufakturen industrian oinarrituta. Beste aldetik, zerbitzuek industriatik oso urrun ez zeuden erregistroak jaso zituzten, eta horrek bezala, balio txikiagoak izan zituen, %27,4tik %25,8ra igaro baitzen, neurri handi batean, turisten jatorria diren herrialde nagusiek ezarri zituzten mugikortasuneko murrizketen ondorioz. Azkenik, eraikuntzaren sektorea izan zen hazkunde neurritsuenak erakutsi zituena, pandemiak sektore horretan ondorio txikiagoak utzi zituelako.

LANGABEAK

	2019ko abuztua	2020ko abuztua	Aldakuntza
GUZTIRA	**116.078**	**146.450**	**30.372**
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.540	24.987	5.447
Bizkaia	66.456	81.641	15.185
Gipuzkoa	30.082	39.822	9.740
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	49.357	66.399	17.042
Emakumeak	66.721	80.051	13.330
25 urtetik beherakoak	7.608	13.438	5.830
25 urte baino gehiago dutenak	108.470	133.012	24.542
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.384	2.879	495
Industria	13.735	17.771	4.036
Eraikuntza	8.259	9.608	1.349
Zerbitzuak	78.164	98.299	20.135
Lehenago lan egin dutenak	102.542	128.557	26.015
Lehenago lan egin ez dutenak	13.536	17.893	4.357
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	17.311	23.966	6.655

Iturria: SEPE.

Turismoaren prezioen beherakadak KPIa jaitsarazi zuen uztailean

KPI INDIZE OROKORRA
Urte arteko aldakuntza tasa



Uztailean, alarma egoerarik gabeko lehen hilekoa baitzen, EAEko KPI indizea -%0,6an kokatu zen, aurreko hilabetean baino lau hamarren beherago, eta horrela, lau hilabete kateatu ditu eremu negatiboan. Beherakada hori turismoaren sektorearekin lotutako ondasun eta zerbitzuen bilakaerak eragin zuen batez ere, ostalaritzan, pakete turistikoetan edo hegazkin txarteletan izandako beherakadak, hain zuzen ere.

KPIAREN BANAKETA
Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko uztaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,6	-0,6
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,4	0,3
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,7	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,1	0,1
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-4,7	-0,9
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	3,9	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-10,5	-1,2

AZPIKO INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



Brent motatako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak upeleko



Inflazioaren beherakada hori arindu egin zen, neurri batean, erregaien prezioen gorakadaren ondorioz. Izan ere, nahiz eta ondasun horien aldakuntza tasak eremu negatiboan jarraitu zuen, gora egin zuten alarma egoeraren amaieraren eta mugikortasunaren gorakadaren ondorioz. Hori horrela izanda, murrizketak lasaitu ahala, deseskalatzeak aurrera egin ahala, erregaien prezioak suspertuz joan dira, apirilean, maiatzean eta ekainean KPIan izandako jaitsieren eragile nagusiak izan ondoren. Aitzitik, inflazio tasa jaisten lagundu zuten taldeen artean, aisialdiko eta kulturako taldea nabarmentzen da, -%2,2ko tasa erregistratu baitzuen, ekainean baino puntu bat eta hamarren bat gutxiago, pakete turistikoen prezioen jaitsieraren ondorioz. Era berean, KPI txikiagoa edukitzen lagundu zuten komunikazio taldeek, telefonia zerbitzuak merkatu zirelako, eta elikagai eta edari ez-alkoholdunek, fruta eta barazkien prezioak jaitsi egin zirelako.

KPI talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko uztaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	**-0,6**	**-0,6**	**0,4**
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,8	2,2	1,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,3	0,5	3,6
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,0	6,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,7	-3,9	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,1	0,6	0,8
Osasuna	0,4	0,4	0,8
Garraioa	-4,2	-4,5	-3,0
Komunikazioak	-1,1	-1,2	-1,7
Aisia eta kultura	-2,2	-1,1	0,7
Hezkuntza	1,4	0,8	1,0
Jatetxeak eta hotelak	0,1	0,3	0,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	-0,1	1,6	1,7

Iturria: INE , Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Ekonomia sentimenduak hobera egin du Eurogunean

SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROGUNEA

ABUZTUKO DATUA

87,7



Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoaren indizeak hobera egin zuen berriro abuztuan eta 87,7an kokatu zen, oraindik ere azken hogei urteetako bere batez bestekoaren azpitik, 100eko balioa hartzen baitu, baina aurreko lau hilabeteetako maila gaindituz. 2009ko atzeraldiarekin alderatuta, oraingo ezkortasuna orduan bizi izandakoaren antzekoa dela iradokitzen du, baina bihurgunearen malda gaur egun nabarmenagoa da, bai jaitsieran bai susperraldian, denboran eragin laburragoa izango duela adieraziz.

Atalez atal zehazten hasten denean, begi bistakoa da eraikuntzak atzean utzi dituela pandemiaren arazoak, eta kontsumitzailearen konfiantzak zein txikizkako merkataritzak baikortasunaren zati bat berreskuratu dutela. Beste aldetik, industriak eta zerbitzuek nabarmen hobetu dute beren balorazioa, baina batez besteko balioetatik urrun daude oraindik. Enpleguari dagokionez, aldagai horren adierazlea 89,6 balioraino hobetu da, hau da, birusa Europan zabaldu zen martxotik izandako daturik altuena jaso du.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA



Euroguneko bi potentzia nagusiak baikortasuna modu irmoan berreskuratzen ari dira. Hala, bai Alemania bai Frantzia 90eko balioaren gainetik daude jada, batez besteko baliotik gero eta gertuago. Alemaniaren kasuan, eraikuntzak eta txikizkako merkataritzak sendotasun nabarmena eskaintzen ari dira, eta, aldi berean, kontsumitzailearen konfiantza hobetzen ari da. Ahuleziak bere industria sektore indartsuan eta zerbitzuetan daude, bietan joera positiboa hauteman den arren. Frantzian, eraikuntzak ez du argi eta garbi aurrera egiten, eta industriaren eta zerbitzuen hobekuntza oraindik ez da nahikoa krisiaren aurreko balioetara itzultzeko.

Espainiak bi herrialde liderrek ez bezalako irudia eskaintzen du, eta abuztuan atzerapausoa eman zuen igurikimenak hobetzeko prozesuan. Zehazkiago adierazita, uztailean 90,6 izatetik abuztuan 88,1 izatera igaro zen. Industriak bere hobekuntza prozesuarekin jarraitu zuen pixkanaka, baina gainerako atalek okerrera egin zuten aurreko hilabetearekin alderatuta. Bereziki kezkagarria da zerbitzuen posizioa (-38,3), batez besteko baliotik (6,3) oso urrun dagoelako. Italiaren kasua beste herrialde garrantzitsuen antzekoa da, baina maila nabarmen baxuago batean. Hala, abuztuan %80,6an kokatu zen, zerbitzuetan bereziki zailtasunak izanda.

Sentimendu ekonomikoa. Italia



Sentimendu ekonomikoa. Espainia



Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuaren kasua deigarria da, aipatu diren Europako beste herrialdeetako mailetatik urrun dagoelako. Hain zuzen ere, abuztuan 75,1eko marka egin zuen, uztailarekin alderatuta ia aldaketarik gabe. Herrialde horretako industriak uztailean baino irudi ezkorragoa eskaini du, eta zerbitzuetan egindako aurrerapen garrantzitsuek ez dute balio sektorearen egoera kezkagarria makillatzeko. Kontsumitzailearen konfiantza ez da itzultzen eta txikizkako salmentak egoera normaltzat jotzen denetik urrun daude oraindik.

Sentimendu ekonomikoa. Erresuma Batua



Iturria: Europar Batzordea.

Aurrekaririk gabeko beherakada Europar Batasuneko BPGan

EUROPAR BATASUNEKO HAZKUNDEA
Urte arteko aldakuntza tasa



EBKO BPG 2. HIRUHILEKOA
-%14,1

Aurreikusita zegoen bezala, aurtengo bigarren hiruhilekoak intentsitate osoz jaso du pandemiaren hedapena geldiarazteko hartu ziren erabakien eragina. Zehazki, Eurostatek argitaratutako informazioaren arabera, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Europar Batasunak %14,1 murriztu zuen bere BPGa. Eurogunean, berriz, urte arteko jaitsiera tasa %15,0 izan zen. Ez dago magnitude horietara hurbiltzen den aurrekaririk eskuragarri dauden serie historikoetan.

Zorionez, enpleguaren gaineko eragina BPGari dagokiona baino nabarmen txikiagoa izan da. Izan ere, ahaleginak egin dira plantillak enpresei lotuta mantentzeko, ekonomia nahiko azkar suspertzeko bidea emango duen aldi iragankor labur bat delako ustean. Zehatzago adierazita, enpleguaren urte arteko jaitsiera tasa %2,7ra mugatu zen bigarren hiruhilekoan Europar Batasunean, eta %2,9ra, berriz, Eurogunean.

EUROGUNEKO HAZKUNDEA
Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNEKO BPG 2. HIRUHILEKOA
-%15,0

Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Italiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Europako herrialde garrantzitsu guztiak atzeraldian sartu dira, eta horietako bakar batek ere ez du lortu %10,0tik gorako beherakadarik saihestea, ez urte arteko tasan, ez hiruhileko arteko tasan. Badira, hala ere, alde batzuk herrialde bakoitzaren intentsitatean. Esate baterako, Alemania da, datuen larritasunaren barruan, zailtasunak hobekien eramaten ari den herrialdea, %11,3ko jaitsiera batekin. Dena dela, tasa handi hori Espainiako ekonomiak lortutakoaren erdia da, herrialde horretako urte arteko tasa -%22,1 baita. Espainiaren posiziotik oso gertu dago Erresuma Batuarena (-%21,7), nahiz eta lehen hiruhilekoan nahiko ondo eutsi zion, gainerako herrialdeetan baino jaitsiera txikiago batekin (-%1,7), euste neurriak atzerapenez hartu zirelako herrialde hartan. Frantziaren (-%18,9) eta Italiaren (-%17,7) zifrek ere pandemiak ekonomian eragin handia izan duela erakusten dute.

Erresuma Batuko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat.

Zerbitzuek Euroguneko PMIaren susperraldia galgatu dute

Uztailean euroaren eremuko PMI indizeak lortu zuen igoera handiak ez zuen jarraipenik izan abuztuan eta adierazlea maila positiboan kokatu zen, baina uztailekoa baino hiru puntu beherago. Hala, abuztuko balorazioaren 51,9 puntuek adierazten dute jarduera osoak hazkunde neurritsua erakusten duela.

Sektorekako analisiak iradokitzen du manufaktu-rak (51,7) ia aldaketarik gabe mantendu direla uztailarekin alderatuta eta zerbitzuak izan direla beren posizioa nabarmen okertu dutenak, uztailaren 54,7ko baliotik abuztuaren 50,5era. Horrek esan nahi du sektorearen jarduera oso gutxi handitu dela. Eskaera berrien murrizketa da okerragotze horretarako Europako zerbitzu enpresek argudiatu duten arrazoi nagusia.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2020KO ABUZTUA

51,9



MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI konposatua. Alemania



PMI konposatua. Frantzia



Herrialdeka, Alemania (54,4) da une ekonomiko onena bizi duen herrialdea, bere manufaktura sektorearen sendotasunari esker. Frantziak, berriz, atzerapausoa eman zuen eta 51,6ko balioa jaso zuen, uztailaren 57,3ko bikainaren ondoren. Bai Italian, bai Espainian, uztailean iradokitzen zen hazkunde leuna ez da finkatu eta bi herrialdeek 50etik behera kokatu ziren berriro abuztuan. Ahultasun hori zerbitzuen sektoretik dator, hilabetean jarduera murritza izan baitzuen, bereziki turismoari lotutako adarrak.

Azkenik, Erresuma Batuak baikortasun irudia eskaintzen du, 59,1eko datuarekin, bi sektoreen portaera onetik eratorria.

PMI konposatua. Italia



PMI konposatua. Espainia



PMI konposatua. Erresuma Batua



Iturria: Markit.

Ekonomiak suspertzeko prozesu motel bati ekin dio

Abuztuan baieztatu ziren Europako ekonomiarako iragarpen txarrak eta Eurostatek bake garaian aurrekaririk ez duten BPGaren hazkundeari buruzko datu batzuk argitaratu zituen. Zehazki, **Europako herrialde garrantzitsu guztiek %10,0 baino gehiago murriztu zuten BPGa urte arteko tasan**. Eszenategi horretan, mugak Alemanian –%11,3 eta Espainian –%22,1 daude. Azken herrialde horretan, turismoak pisu handiagoa izateak eta agintariek atzerrira bidaiatzeko ezarritako murrizketek zigortu egin zituzten, oro har, zerbitzuen mende gehien dauden herrialdeak.

Baina hori bigarren hiruhilekoan izan zen, eta dagoeneko bete-betean sartuta gaude hirugarrenean. Orain gauza batzuk aldatzen hasi dira. Sentimendu ekonomikoa da horietako bat. Hain zuzen ere, adierazle horrek apirilean erakutsi zuen bere unerik ezkorrena, baina ordutik sentsazioak berreskuratzen joan da, nahiz eta egonkortasuneko egoerara iritsi gabe, 100eko balioa jasoko baitzuen. **Eurogunean, apirilaren 64,9tik abuztuaren 87,7ra igaro da, lau hilabetean hogei puntu baino gehiago hobetuz**. Bilakaera antzekoa da herrialde guztietan, nahiz eta Espainiaren kasuan uztaileko gehiegizko baikortasunak beheranzko zuzenketa txiki bat egiteko pausoa eman duen abuztuan, baina hil horretako 88,1 ez da batez bestekoaren desberdina. Zerbitzuak eta txikizkako merkataritza dira, hain zuzen ere, hilabete horretan atzera joan direnak.

Industria pixkanaka indarra berreskuratzen ari da. Hori da sentimendu ekonomikotik ondorioztatzen dena, baina baita ekaineko industria ekoizpenaren datuetatik ere. Europaren kasuan, zifrek adierazten dute apirileko urte arteko %28,6ko jaitsieraren ondoren, euroaren eremuan ekainean -%12,3ra leundu zen jaitsiera tasa. Espainian, apirileko eta ekaineko tasak –%34,8 eta –%14,1 izan dira, hurrenez hurren. Euskadi ez da salbuespena bilakaera positibo horretan, unearen larritasun handiaren barruan, eta haren industriaren ekoizpena -%39,1etik -%17,8ra igaro zen aldi horretan. Laster ezagutuko dira uztaileko datuak eta ziurrenik joera bera jarraituko dute.

EAEko lan merkatuak industriaren antzeko irudia ematen du, hau da, oraindik ez ditu berreskuratu pandemia agertu aurreko balioak, baina hilabetez hilabete murrizten ari da hark utzitako eragin negatiboa. Errealistak izanik, **goiz da EAEko ekonomia ahul batek enplegu garbia sor dezan,** gutxienez urte arteko tasan. Gehienez ere, lanpostuen galera murriztea da helburua, eta hori lortzen ari da. Ekainean, afiliazioak urte arteko %3,1 murriztu ziren, uztailean jaitsiera tasa %2,8 izan zen eta abuztuan, berriz, jaitsiera %1,9ra mugatu zen. Asko falta da galdutako mailara itzultzeko, baina pausoak ematen ari dira.

Ildo beretik, **kontratazioan suspertze leuna nabaritzen hasi da**. Uztaila eta abuztua bitartean, 100.000 kontratu baino zertxobait gehiago sinatu ziren, 2019ko epe horretan adostu zirenak baino %31 gutxiago, baina kontuan hartu behar da apirilean eta maiatzean kontratazioaren jaitsiera %60tik gorakoa izan zela. Horrek langabeziaren gorakada geldiarazi du. Egia da langabeziak gora egiten duela nabarmen oraindik, baina ekaineko urte arteko %29,7ko igoeraren ondoren, abuztuan erritmoa moteldu egin zen, %26,2raino. Urrats txikiak dira oraindik, baina norabide egokian.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	II
BPG	**3,0**	**2,2**	**2,2**	**2,1**	**2,2**	**-3,2**	**-20,1**
Barneko azken kontsumoa	2,5	1,9	1,9	1,9	1,7	-3,0	—
Familien kontsumoa	2,7	1,9	1,9	1,8	1,5	-4,8	—
Administrazioaren kontsumoa	1,6	2,1	2,1	2,2	2,2	4,1	—
Kapital eraketa gordina	4,7	2,8	2,5	2,2	2,4	-3,6	—
Barne eskaria	3,0	2,1	2,0	2,0	1,9	-3,1	—
Esportazioak	3,0	0,4	2,8	-0,9	1,3	-7,5	—
Inportazioak	3,0	0,4	2,6	-0,9	0,9	-7,3	—
Lehen arloa	7,9	0,6	-0,1	0,2	0,4	3,5	—
Industria eta energia	2,5	1,1	1,0	0,8	2,3	-3,6	—
Eraikuntza	4,1	3,1	3,2	2,9	1,9	-2,7	—
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,5	2,5	2,2	-2,8	—
Balio erantsi gordina	2,8	2,2	2,2	2,1	2,2	-2,9	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,1	2,1	1,8	2,3	-5,1	—
Enplegua	2,6	1,6	1,7	1,6	1,3	-2,8	—

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020			2020	2021
	II	III	IV		
BPG	**-13,4**	**-10,3**	**-7,8**	**-8,7**	**6,7**
Barneko azken kontsumoa	-11,0	-8,5	-6,5	**-7,3**	**6,2**
Familien kontsumoa	-16,4	-11,8	-9,1	**-10,5**	**8,5**
Administrazioaren kontsumoa	9,2	3,8	3,3	**5,1**	**-1,7**
Kapital eraketa gordina	-15,7	-11,2	-8,0	**-9,6**	**7,1**
Barne eskariaren ekarpena	-12,4	-9,4	-7,0	**-8,0**	**6,6**
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,0	-0,9	-0,8	**-0,7**	**0,1**
Lehen arloa	-9,6	0,5	-9,6	**-3,8**	**8,4**
Industria	-12,9	-8,6	-6,2	**-7,8**	**6,4**
Eraikuntza	-8,6	-5,6	-4,8	**-5,4**	**4,6**
Zerbitzuak	-13,9	-11,1	-8,3	**-9,0**	**6,9**
Balio erantsi gordina	-13,3	-10,1	-7,6	**-8,5**	**6,7**
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-14,3	-12,0	-9,1	**-10,1**	**6,5**
Lanaldi osoko lanpostuak	-10,7	-8,5	-5,7	**-7,0**	**5,4**
Landunak (BJA)	-4,8	-7,8	-6,3	**-4,6**	**1,8**

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
CEPREDE	-9,3	8,2	BBVA	-7,3	5,8
AFI	-7,5	—			

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	II
BPG	**2,4**	**2,0**	**2,0**	**1,9**	**1,8**	**-4,1**	**-22,1**
Kontsumo pribatua	1,8	1,1	0,7	1,3	1,2	-5,8	-25,7
Kontsumo publikoa	1,9	2,3	2,3	2,2	2,4	3,6	3,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,8	0,5	1,4	0,6	-6,5	-26,8
- Aktibo finko materialak	6,2	1,7	0,2	1,1	-0,1	-8,4	-30,8
- Eraikuntzan	6,6	0,8	1,7	0,0	-2,2	-8,3	-30,9
- Ekipamendu ondasunetan	5,7	2,6	-2,5	2,4	2,6	-9,3	-32,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,1	2,2	1,9	2,6	4,0	3,5	-6,5
Nazio eskaria (ekarpena)	2,6	1,5	1,1	1,5	1,3	-3,7	-19,2
Esportazioak	2,2	2,6	2,6	3,6	3,3	-6,1	-38,6
Inportazioak	3,3	1,2	-0,2	2,7	2,1	-5,5	-33,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-8,9	6,2	IEE	-11,0	5,5
Axesor	-10,8	6,9	Intermoney	-10,6	7,2
BBVA	-11,5	7,0	Mapfre Economics	-10,6	8,3
Bankia	-12,7	6,8	Repsol	-12,1	11,5
CaixaBank	-14,0	10,5	Santander	-10,1	7,2
Cámara de Comercio España	-10,6	4,3	Ygroup Companies	-13,0	6,5
Cemex	-9,0	6,0	Universidad Loyola Andalucía	-10,8	6,9
CEEM-URJC	-9,1	6,9	**Consenso (media)**	**-10,8**	**7,2**
CEPREDE-UAM	-8,9	7,5	Gobierno (04-2020)	-9,2	6,8
CEOE	-10,2	5,9	Banco España (06-2020)	-9,0/-15,1	7,7 / 6,9
Equipo Económico (Ee)	-10,0	7,2	Comisión Europea (07-2020)	-10,9	7,1
FUNCAS	-9,8	7,8	FMI (06-2020)	-12,8	6,3
ICAE-UCM	-11,5	7,0	Consensus Forecast (07-2020)	-10,8	7,1

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizacines Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies.

BPGAREN HAZKUNDEA
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	II
AEB	3,0	2,2	2,0	2,1	2,3	0,3	-9,1
Txina	6,6	—	6,2	6,0	6,0	-6,8	3,2
Japonia	0,3	0,7	0,9	1,7	-0,7	-2,0	-10,0
Kanada	2,0	1,7	2,0	1,6	1,5	-0,9	-13,0
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,5	1,6	1,2	-2,5	-14,2
Eurogunea	1,9	1,3	1,3	1,4	1,0	-3,1	-15,0
Alemania	1,3	0,6	0,1	0,8	0,4	-2,2	-11,3
Frantzia	1,8	1,5	1,8	1,6	0,8	-5,7	-18,9
Erresuma Batua	1,3	1,5	1,4	1,3	1,1	-1,7	-21,7
Italia	0,8	0,3	0,4	0,5	0,1	-5,6	-17,7
Herbehereak	2,4	1,7	1,5	1,6	1,7	-0,4	-9,2

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020KO UZTAILA
Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-5,3	4,0	0,8	1,7	9,2	7,5
Japonia	-5,1	2,5	-0,2	0,1	3,0	3,2
Kanada	-6,5	5,2	0,6	1,7	9,7	7,9
Europar Batasuna	-7,9	5,5	0,5	1,2	—	—
Eurogunea	-8,1	5,9	0,4	1,0	9,3	9,3
Alemania	-6,3	5,0	0,6	1,5	6,1	6,0
Frantzia	-9,9	7,0	0,5	1,1	10,0	10,3
Erresuma Batua	-9,2	5,9	0,8	1,3	7,3	7,3
Italia	-10,6	6,1	-0,1	0,5	10,7	11,5
Espainia	-10,8	7,1	-0,2	0,7	—	—
Herbehereak	-5,9	3,7	1,0	1,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.